

14. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Maiatza-Ekaina




JAIOTZA TASA ETA ALDAKETA DEMOGRAFIKOA
EUROPAR BATASUNEAN ETA GI PUZKOAN

Jaiotza-tasa Gipuzkoan eta Europar Batasunean

• 2008an 5,4 milioi jaiotza izan ziren Europar Batasunean

2008an zerbait gora egin du jaiotza-tasak Europar Batasunean eta 10,9 jaiotza/1.000 biztanleko da jaiotza-tasa (Eurostat-en datuak), aurreko urteetako baino zerbait altuagoa. Horrenbestez, 2002an jada jaiotza-tasak hasitako hobekuntzarekin bat egin da 2008an.



Jaiotza-tasari erreparatzen bazaio, EBko kide diren estatuen artean agerikoak dira ezberdintasunak.

Irlandak duen tasa altua (16,2) azpimarra daiteke, gainerako herrialdeena nabarmenki gaindizten duelarik. Atzetik daude Frantzia (13,0) eta Erresuma Batua (12,9).

Alemaniak du jaiotza-tasarik murriztuena (8,2), hain zuzen ere Irlandakoaren erdia. Jaiotza-tasa baxua dute, halaber, Austriak (9,3), Italiak (9,6) eta Hungariak (9,9).

14. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Maiatza-Ekaina



- Gipuzkoan 7.184 pertsona jaio ziren 2008an eta jaiotza-tasa Europar Batasunekoaren azpitik geratu da

Modu berean, Gipuzkoan hobera egin du denboran jaiotza-tasak. 1994. urtean “behera jo zuen”, 5.269 jaiotzekin, eta, urte hartatik aurrera, etengabe egin da hobera. Horrela, 2008an 7.000 jaiotzatik gora izan dira.

Hazkunde horrekin batera, 10,4ra iritsi zen jaiotza-tasa 2008an. Europar Batasuneko tasa baino zerbait baxuagoa izanik ere, EBko kide diren hogeita zazpi estatuetatik zortzik dutena gainditzen du.

Hortaz, jaiotza-tasaren goranzko joera egonkortzen ari dela dirudi eta jada hamabost urtez luzatzen da. Hala ere, ez da oraindik lortu EBko batez bestekoarekin bat egitea.

Esandako guztiarekin lotuta, ezin da ahaztu azken hogeitaz urteetan, hau da, 70eko hamarkadaren erdi aldetik 90eko hamarkadaren erdi aldera, jaiotza-tasak ezagutu duen “hondoratzea”.


Hain zuzen ere, 1976an 13.367 jaiotza izan ziren. Bi hamarkada beranduago, 1994an, 5.269 jaiotzara murriztu zen kopurua. Hau da, % 61 gutxiago.

Ilido horretan, mende berriaren lehenengo urteetan Gipuzkoako jaiotza-tasa Europar Batasunekoaren azpitik zegoen nabarmenki, baita EBko kide diren estatukoenetik ere.

2000. urtean, adibidez, 8,9ko jaiotza-tasa zuen Gipuzkoak. Tasa hori EBko bi estatu berrik dutenarekin bakarrik aldera daiteke: Txekiar Errepublika eta Letonia.

Horrek guztiak gizartean zein ekonomian eragin dituen ondorioak, ezagunak izanik ere, oso larriak dira eta gure lurraldeak etorkizunean duen funtsezko erronketako bat osatzen dute.

Egoerari behar den bezala aurre egiteko, familia-esparruan gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna lortzeko lan egin behar da, eta jaiotza-tasa goratzeko baldintza egokiak sortu behar dira. Zentzu horretan, gizarte osoa zein botere publikoak nahastu behar dira.



14. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Maiatza-Ekaina



• Jaiotza-tasa Europar Batasunean eta Gipuzkoan

	Jaiotza-tasa (1.000 biztanle)		
	2000	2007	2008
EB-27	10,6	10,6	10,9
GIPUZKOA	8,9	10,4	10,4
Belgika	11,2	11,4	11,7
Bulgaria	9	9,8	10,2
Txekiar Errepublika	8,8	11,1	11,5
Danimarka	12,6	11,7	11,8
Alemania	9,3	8,3	8,2
Estonia	9,5	11,8	12
Irlanda	14,4	16,2	16,9
Grezia	9,5	10	10,3
Espainia	9,9	11	11,4
Frantzia	13,3	12,9	13
Italia	9,5	9,5	9,6
Zipre	12,2	10,9	11,6
Letonia	8,5	10,2	10,6
Lituania	9,8	9,6	10,4
Luxenburgo	13,1	11,4	11,5
Hungaria	9,6	9,7	9,9
Malta	11,6	9,5	10
Holanda	13	11,1	11,2
Austria	9,8	9,2	9,3
Polonia	9,8	10,2	10,9
Portugal	11,7	9,7	9,8
Errumania	10,4	10	10,3
Eslovenia	9,1	9,8	10,5
Eslovakia	10,2	10,1	10,6
Finlandia	11	11,1	11,2
Suedia	10,2	11,7	11,9
Erresuma Batua	11,5	12,7	12,9

Iturria: Eurostat eta Eustat

14. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Maiatza-Ekaina



• Amaren adina 31-35 urtekoa da jaiotzeetan

Azken hamarkadetan Gipuzkoan gora egin du, pixkanaka, jaiotzekin lotutako amen batez besteko adinak. Gaur egun, ia jaiotzeen erdia 31 eta 35 urte arteko amen multzoari dagokio (% 47). Zehazkiago, 31 urte eta 32 urte dituzten emakumeen taldeak bereganatzen du jaiotza gehien: bost jaiotzatik bat bien artean.

Amak 30 urte baino gutxiago ditu jaiotzen % 28an eta 35 urte baino gehiago, berriz, % 25ean.

Azpimarratzeko beste alderdi bat, heriotza-tasak jaiotza-tasan duen eragina murriztu izana da. 2008an 1,9/1.000 zen tasa, aurreko bi hamarkadetan lortutakoaren erdia.

Bestalde, jaiotza guztiak batera hartuta, erdia baino gehiago (% 55) lehen semea/alaba dira; % 37 bigarrena eta % 8 hirugarrena edo ondorengoa.



14. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Maiatza-Ekaina



Aldaketa demografikoa Gipuzkoan eta Europar Batasunean


Inmigratioari esker eusten zaio hazkunde demografikoari Europan

Aldaketa demografikoak bi osagai ditu: hazkunde begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa) eta migrazio-saldoa, eta azken horrek lagunduko digu, neurri handiago batean, biztanleria europarrak izandako hazkundera ulertzen.

Europar Batasuneko biztanleriak 2,1 milioi pertsonako hazkundera ezagutu zuen 2008an, guztira 499,8 milioiko kopurua osatuz. Hazkunde horretatik 0,6 milioi pertsona hazkunde begetatiboak ekarri zituen eta 1,5 milioi pertsona, berriz, migrazio-saldoak.

Europar Batasuneko aldaketa demografikoak tasa positiboa lortu zuen: 4,3 biztanle berri/1.000 pertsona egoiliar. Luxenburgo, Irlanda, Espainia eta Eslovenian ezagutu dituzte hazkunderik handienak, kanpotik iritsitako pertsoneri esker. Irlanda da salbuespen bakarra.

EBko kide diren zazpi estatutan, aitzitik, biztanleriak murrizketa ezagutu zen: Lituania, Bulgaria, Letonia, Alemania, Hungaria, Errumania eta Estonia.



14. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Maiatza-Ekaina



• Aldaketa demografiko positiboa biziagoa da gaur egun Gipuzkoan

Gipuzkoan 5.300 pertsonako hazkundera ezagutu da azken urtean, 7,7/ 1.000 biztanleko tasarekin. Europar Batasuneko batez bestekoa gainditu du Gipuzkoako tasak, bai eta EBko kide diren hogeita zazpi estatuetatik hemeretziatan erregistratutakoa ere.

Aldaketa demografikoaren osagai nagusiei helduta, kanpoko migrazio-saldoa azpimarratu behar da Gipuzkoan, hazkunderaren % 80 berari esker lortu delako; eta gainerako % 20 hazkundera natural edo begetatiboari dagokio (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea).

Gipuzkoaren kasuan, duela urte gutxi hasi zen nabarmentzen migrazioek aldaketa demografikoaren gainean duten eragina. 2005ean hasi zen, nahiz eta nabarmenki areagotu den azken urteetan. Eta 1999tik aurrera bakarrik lortu dira migrazio-saldo positiboak.

Esanak esan, 2005-2007 hirurtekoan 3.353 pertsonakoa izan zen batez besteko migrazio-saldoa; 1999-2005 aldian batez besteko positiboa lortu zen, 743 pertsonakoa; eta 1993-1998 aldian batez besteko migrazio-saldoa negatiboa izan zen, 955 pertsonakoa.

Ekonomia-ziklo berri baten aurrean egonik, azken urteetan ezagutu den migrazio-saldo positiboa motelduko dela eta, ziur asko, murriztuko dela aurreikusi daiteke. Halaber, Europar Batasuneko batez besteko tasekin bat egingo dela aurreikusi daiteke.

• Aldaketa demografikoa Europar Batasunean eta Gipuzkoan

	Aldaketa demografikoaren tasak (1.000 biztanle)		
	Aldaketa begetatiboa	Migrazio-saldoa	Aldaketa demografikoa
EB-27	1,2	3,1	4,3
GIPUZKOA	1,5	6,2	7,7
Belgika	2,2	6	8,2
Bulgaria	-4,3	-0,1	-4,4
Txekiar Errepublika	1,4	6,9	8,3
Danimarka	1,9	5,3	7,2
Alemania	-2,1	0	-2
Estonia	-0,5	0,1	-0,4
Irlanda	10,4	4	14,5
Grezia	0,8	3,1	3,9
Espania	2,9	9,1	12
Frantzia	4,5	1,2	5,7
Italia	-0,1	7,3	7,3
Zipre	5,2	0,8	5,9
Letonia	-3,1	-1,1	-4,2
Lituania	-2,6	-2,3	-4,9
Luxenburgo	4,1	15,8	19,9
Hungaria	-3,1	1,7	-1,4
Malta	2,1	6	8,1
Holanda	3	1,9	4,9
Austria	0,3	4,1	4,4
Polonia	0,9	-0,4	0,5
Portugal	0	0,9	0,9
Errumania	-1,5	0,1	-1,4
Eslovenia	1,3	9,6	10,9
Eslovakia	0,8	-1,1	2,1
Finlandia	2	2,9	4,9
Suedia	1,9	6	8
Erresuma Batua	3,5	3,7	7,2

Iturria: Eurostat eta Eustat, 2008ko datuak, Gipuzkoako migrazio-saldoa izan ezik (2007).